

Zentroak eraberritzea Innovación en los centros

IES Zubiri-Manteo BHI
Escuela de Acuicultura de Mutriku
Mutrikuko akuikultura eskola

IES. UNI. Eibar-Ermua BHI

IES ZUBIRI-MANTEO BHI
Donostia-San Sebastián



Georgiako bost ikaslek turismoko ziklo bat egin zuten Donostiako Zubiri-Manteo institutuan aurreko ikasturtean

Cinco estudiantes georgianos realizaron el curso pasado un ciclo de turismo en el instituto Zubiri-Manteo de Donostia-San Sebastián

Ikaste partekatua Aprendizaje compartido

Tamara Tsotskolavsi, Nina Mtchedlidze, Irine Arshba, Gvantsa Chicovani eta Tengiz Gvaramadze. Bost lagun horiek, izenengatik bitxia eman dezakeen arren, Donostiako Gros auzoko Zubiri-Manteon aritu dira ikasten. Eusko Jaurlaritzak antolatutako programa bati esker, Georgiako gazte horiek Turismo alorreko prestakuntza jaso dute. Zehazki, ziklo espezifiko bat egin dute eta ezagutza mordoa jaso dute, beren herria turistikoki garatzeko.

Produktu turistikoen diseinu komertziala, zerbitzuen produkzioa eta salmenta, munduko geografia, katalogoak egitea eta ingelesa ikasi zituzten, besteak beste bost georgiarrek aurreko ikasturtean, irailtik ekainera. Egin dituzte dagozkien azterketak. Prestakuntza zikloa gainditu eta agiria eskuratu ondoren, Tamara, Nina, Irine, Gvantsa eta Tengiz Georgiako beren etxean dira dagoeneko. Hantxe ipiniko dute praktikan Zubiri-Manteon ikasitako guztia.

Tamara Tsotskolavsi, Nina Mtchedlidze, Irine Arshba, Gvantsa Chicovani y Tengiz Gvaramadze. Estas cinco personas, aunque por sus nombres pueda sonar extraño, han formado parte del alumnado del Instituto Zubiri-Manteo, en el barrio donostiarra de Gros. Gracias a un programa desarrollado por el Gobierno Vasco, este grupo de jóvenes procedentes de Georgia han obtenido formación en Turismo, un ciclo específico en el que han podido adquirir conocimientos que les servirán para relanzar turísticamente su país.

Diseño comercial de productos turísticos, producción y venta de servicios, geografía mundial, elaboración de catálogos o inglés son sólo algunas de las asignaturas que los cuatro georgianos tuvieron que estudiar el curso pasado, de septiembre a junio. Una vez superados los exámenes correspondientes, aprobado, por tanto, el ciclo formativo y con su título en la mano, Tamara, Nina, Irine, Gvantsa y Tengiz se encuentran ya en su hogar georgiano. Es allí donde pondrán en práctica todo lo aprendido en el Instituto Zubiri-Manteo.

Tamara Tsotskolavsk azaldu du proiektuak funtsezko helburu bat zeukala. "Turismoa kudeatzeko tresnak ezagutu nahi genituen. Gero, Georgiako Turismo Sailarekin eta bidaia agentzekin elkarlanean, turismo plan sendo bat egingo dugu, turismo jarduerari beste bultzada bat emateko".

Georgiak zer ikusi ugari eskaintzen ditu. Georgia Europa eta Asia artean dago. Errusia du iparraldean, eta Turkia, Armenia eta Azerbaijan hegoaldean. Georgian, "guztia da ederra. Txikia den arren (4,7 milioi biztanle), deus ez zaio falta", dio Tamarak. Jendea "atsegina eta abegitsua" da, eta georgiar gazteak "batez ere Georgiako bazterren edertasuna" nabarmentzen du. Hamabost parke nazional eta erreserba natural baino gehiago dira. Jendea "txundituta gelditzen da hura zein berdea den eta ikusteko zenbat gauza dagoen ikusita", dio Tamarak. "Georgiarroi izugarri gustatzen zaigu jendearekin harremanak izatea, eta oso adeitsuak gara turistekin. Izan ere, herri esaera zahar batek dio: "Bisitaria Jainkoak bidaltzen du. Beraz...".

Tamarak bere lan berriari ekingo dio. Turistak erakarriko ditu Georgiara, eta beharrezko azpiegiturak sortuko, turismoa benetako aberastasun-iturri bilaka dadin beraren herriarentzat.

Helburu horrekin etorri ziren aurreko ikasturtean Tamara eta haren lau lagunak Zubiri-Manteo instituturako, Eusko Jaurtaritzak eta Georgiako gobernuak sinatutako hitzarmen bati esker. Hitzarmena 2006ko otsailean sinatu zuten, Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria Kaukasoko herrira joan zenean, hango Unibertsitateak Honoris Causa Doktore izenda zezan.



Hitz onak

Tamara Tsotskolavsk hitz onak baizik ez ditu institutuarentzat. "Erraz egokitu ginen, ezagutzen baikenuen hizkuntza, eta ikastetxean asko lagundu baitziguten". Bost gazte georgiarrak 24 eta 35 urte bitartekoak dira. Bazituzten jadanik goi mailako ikasketak edo diplomaturak beren herrian, eta, beraz, bi irakasteko erak konparatu ahal izan zituzten. "Egia esan, hemen oso bizkor lan egiten da, eta antolaketa ona dute. Programa ongi zehaztuta dago, eta azterketak oso zehatzak izaten dira", azaldu digu Tamarak. Baina eskerrak ematen ditu "ikasi dugun guztiagatik, benetan praktikoa eta produktiboa baita". "Okerrena goizean goiz jaiki beharra izan zen", dio, txantxetan, ikasle georgiarrak.

Halere, esperientzia akademiko eta prestakuntzazkoa baino harago, turismo zikloa Donostian eginda, gazte taldeak asko ikasi du, "bizitzaz eta pertsona gisa". Olaran ikasle-egoitza nagusian egon dira bizitzen. Horri esker, donostiarrak ugarirekin eduki dute harremana. "Uste dut bizitza osorako adiskideak egin ditugula", dio Tamarak, nostalgia apur batekin.

"Etxean bezala"

Irudi balezake ere Georgiak eta Gipuzkoak ez dutela elkarren antzik, bost gazte georgiarren esperientziak besterik erakusten du. "Etxean bezala sentitu gara, antzekotasun ugari baitira gure herrien artean", esan du Tamarak. Adibidez, "herritarren goxotasuna eta abegi ona, eta bazterren berdetasuna" nabarmentzen ditu. "Gastronomiarekiko zaletasuna eta bilera ugari mahai baten inguruan egitea ere bai".

Tamara Tsotskolavsk diosku: "Euskal Herrian euskara daukazue, hizkuntza zahar eta besteak ez bezalako bat. Bada, Georgian ere geure hizkuntza daukagu, eta ez du antz handirik ingurukoekin". Gainera, "Georgiak eta Euskal Herriak badute beste antzekotasun bat: biek beren kultura, historia eta kalitatezko literatura daukate".

Tamara Tsotskolavski explica que el objetivo fundamental del proyecto fue "conocer las herramientas de gestión turística existentes, para luego en colaboración con el Departamento de Turismo de Georgia y las agencias de viajes del país elaborar un plan turístico que nos permita relanzar la actividad turística".

Georgia tiene muchas cosas que ofrecer. Situada entre Europa y Asia, con Rusia al norte, y Turquía, Armenia y Azerbaiyán al sur, se trata de un país donde "todo es bello y que, pese a ser pequeño (4,7 millones de habitantes) no le falta de nada", comenta Tamara. Además de su gente "encantadora y hospitalaria", esta joven georgiana destaca de su país "sobre todo el paisaje". Con más de quince parques nacionales y reservas naturales, "los visitantes se quedan maravillados de lo verde que es y de las muchas cosas que hay para ver", asegura. "A los georgianos nos gusta estar en contacto con la gente y somos muy respetuosos con los turistas porque según un dicho popular Al visitante lo manda Dios, así que...".

De esta manera, Tamara comienza su nuevo trabajo que consistirá en atraer turismo a Georgia y crear las infraestructuras necesarias para que pueda convertirse en una fuente de riqueza real para el país.

Con este objetivo recaloron el curso pasado Tamara y sus cuatro compañeros en el instituto Zubiri-Manteo, gracias a un proyecto que surgió fruto de un convenio firmado entre el Gobierno Vasco y el gobierno de Georgia en febrero de 2006 cuando el lehendakari, Juan José Ibarretxe, visitó el país caucásico para ser investido Doctor Honoris Causa por la Universidad.

Buenas palabras

De boca de Tamara Tsotskolavski sólo salen buenas palabras para el instituto, donde la adaptación fue fácil "gracias a que ya conocíamos el idioma y a que en el centro nos ayudaron mucho". Los cinco jóvenes georgianos, de edades comprendidas entre los 24 y los 35 años contaban ya con estudios superiores o diplomaturas en su país, así que pudieron comparar las diferentes formas de enseñanza. "La verdad es que aquí el ritmo de trabajo es muy alto y hay muy buena organización, lo que hace

que el programa esté muy definido, los exámenes sean muy concretos...", explica Tamara, quien, no obstante, agradece "todo lo que hemos aprendido porque es realmente práctico y productivo". "Lo peor para mí fue el tener que madrugar", bromea la estudiante georgiana.

Sin embargo, más allá de la experiencia académica y formativa, el hecho de realizar el ciclo de turismo en San Sebastián, ha reportado a este grupo de jóvenes "un aprendizaje vital y personal incalculable". Su estancia en el Colegio Mayor Olarain les ha hecho entrar en contacto con muchos donostiarras. "Creo que hemos hecho amigos para toda la vida", apunta Tamara con cierta añoranza en su voz.

"Como en casa"

Pese a que pudiera parecer que Georgia y Gipuzkoa tienen poco que ver, la experiencia de los cinco jóvenes georgianos ha demostrado lo contrario. "Nos hemos sentido como en casa, porque en realidad existen muchas similitudes", comenta Tamara. Entre ellas destaca "el carácter amable y hospitalario de la gente y el paisaje verde". "También el gusto por la buena gastronomía y el hecho de que muchas reuniones se desarrollen en torno a una mesa", añade.

Tamara Tsotskolavski asegura que al igual que en el País Vasco "está el euskara, un idioma muy antiguo y diferente al resto, en Georgia también tenemos nuestra propia lengua, que tampoco tiene mucho parecido con las de alrededor". Además, Georgia y el País Vasco comparten "una cultura, una historia y una literatura propia y de buena calidad".

MUTRIKUKO AKUIKULTURA ESKOLA ESCUELA DE ACUICULTURA DE MUTRIKU



Akuikulturaren bidez, aingira biziberritzea

Recuperar la anguila desde la acuicultura

Mutrikuko (Gipuzkoa) Akuikultura Eskola europar proiektu berritzaile batean parte hartzen ari da, aingira, galzorian dagoen espeziea, biziberritzeko helburuz. Euskal Autonomia Erkidegoan geratzen den alekopurua zenbatu nahian, ikasleek tranpa bat jarri dute Muskizeko (Bizkaia) Barbadun ibaian, eta Azti Arrantza eta Elikagaien Teknologia Institutuak Oria ibaian egiten diharduen laginketan ere parte hartzen ari dira.

Mutrikuko ikastetxeak duela lau urte ekin zion jarduerari. Itsas espezieak itxian hazten irakasten duen zentro bakarra da Euskal Autonomia Erkidegoan. Ikasturte honetan 28 ikasle dauka eta, duela hiru urtez geroztik, europar ekimen bat du xede: gizakiak esku hartu aurretik zegoen aingira-populazioaren % 40 berreskuratzea.

Akuikultura Eskolako irakasle eta proiektuko arduradun Igotz Gallastegi azaldu duenez, egindako kalkuluak adierazten dute 1980ko hamarkadatik hona aingira-populazioaren % 80 desagertu dela. Hainbat eragilek batera izan dute zerikusia galera horrekin, hala nola presek, turbinek eta kutsadurak. Gauzak horrela, Europak arazoari heltzea erabaki eta aholkularitza-batzorde bat eratu zuen. Batzorde horretan, hain zuzen, parte hartzen du Mutrikuko Lanbide Heziketako ikastetxeak.



La Escuela de Acuicultura de Mutriku (Gipuzkoa) participa en un novedoso proyecto europeo de recuperación de la anguila, especie que se encuentra en peligro de extinción. Con el objetivo de calcular el número de ejemplares que quedan en el País Vasco, los alumnos han diseñado e instalado una trampa en el río Barbadun de Muskiz (Bizkaia) y toman parte en los muestreos que el Instituto Tecnológico Pesquero y Alimentario Azti realiza en el río Oria.

El centro mutrikuarra comenzó su actividad hace cuatro años como el único de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) que enseña a criar especies marinas en cautividad. La escuela, que en este curso cuenta con un total de 28 estudiantes, está inmerso desde hace tres años en una iniciativa europea que persigue recuperar el 40% de la población de anguila que existía antes de la intervención humana.

Según explica Igotz Gallastegi, profesor y responsable de este proyecto en la Escuela de Acuicultura, se calcula que, desde los años 80, ha desaparecido hasta el 80% de la población de anguila. En ello han influido un cúmulo de factores como las presas, las turbinas y la contaminación. Ante esa constatación, Europa decidió tomar cartas en el asunto y creó un comité asesor en el que participa este centro de Formación Profesional.

Europar proiektu horren esparruan, EAEn lantalde bat eratu zen, Akuikultura Eskolak, Eusko Jaurlearitzak, Aztik, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek osatua.

Euskal ibaietan gaur egun dauden aingiren kopurua zehazteko datu fidagarriak ez izatea izan da lehenengo arazoa. Hori jakiteko ikerketak egin dira ibai handi batean, Oria (Gipuzkoa) eta txiki batean, Barbadun ibaian. Laginen emaitzek Euskal Autonomia Erkidegoan dauden ale guztien kopuruaren berri jakiteko balio izango dute. "Horri esker, dagoenari buruzko ideia zehatza izan eta estimazioak egin ahal izango ditugu", adierazi du Gallastegi.

Akuikultura Eskolako lehen eta bigarren mailako ikasleak dagoeneko parte hartzen ari dira proiektuaren fase horretan. Alde batetik, tranpa bat diseinatu eta Muskizeko Barbadun ibaian ezarri dute, Tknikaren eta Tolosako LHikren laguntzarekin. Gailua abian jartzeko azken ukituak baino ez dira falta datorren otsaileko kanpainari begira, hil horretan aingirak ibaian gora joaten hasten baitira.

Horrez gain, ikasleek Aztiri laguntzen diote Oria ibaian hartzen ari den laginetan, Usurbil inguruan, eta beste tranpa bat jarri dute han. Orobat, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ekolur S.L.k itsasontzietan eta arrantza elektronikoren bidez egiten diharduten azterketetan ere esku hartzen dute.

Akuikultura Eskolako irakasleak azpimarratu duenez, ikasleek "Europar eta mundu zabalean puntakoa den proiektu batean" parte hartzea garrantzi handikoa da, orain arte arlo horretan kanadarrek baino ez baitute lan egin. Gainera, proiektu bat eta bere faseak nola garatzen diren ikusteko aukera izango dute ikasleek.

Laginketa-lanek hiru edo lau urte emango dituzte aingira-populazio osoari buruzko estimazio fidagarria egiteko aukera eman arte. Ondoren, hala behar izanez gero, aingira birpopulatzeari ekingo litzaioke. Gallastegi azpimarratu duenez, eginkizun horretarako derrigorrezkoa izango litzateke Eusko Jaurlearitzak eta foru-aldundiek esku hartzea, aingira-aleak erosi beharko bailirateke eta espezie horrek oso kotizazio garestia du merkatuan.

Erakundeek azkenik laguntza horiek ematen badituzte, Eskolak Usurbileko (Gipuzkoa) arrain-haztegian lan egingo luke birpopulatzeko proiektua aurrera eramateko. Oraingoan, zenbait harreman izan dituzte Valentziako aditu batzuekin, haiek erabilitako teknikek "emaitza onak" eman dituzte eta. Halaber, Irlandako Galway Unibertsitatea ere interesaturik agertu da gai horren inguruan, Gallastegiren hitzetan.

Mutrikuko Eskolak Oria eta Barbadun ibaietan garatutako proiektuei buruzko unitate didaktikoak sortuko ditu, Tknikaren bitartez. Zehazki, diseinatutako tranpak, laginketak eta aingiraren bizitza-zikloa ezaugarritzeko DVDa plazaratuko du. Informazio hori, ikastetxeko ikasleentzat ez ezik, gaiari lotutako beste diziplina batzuk ikasten ari direnentzat ere baliagarria izango da, adibidez Unibertsitateko ikasleentzat.

En el marco de ese mismo proyecto europeo, en la CAV se formó otro grupo de trabajo integrado por la Escuela de Acuicultura, el Gobierno Vasco, Azti, la Universidad del País Vasco y las diputaciones de Gipuzkoa, Alava y Bizkaia.

El primer problema es la falta de datos fiables sobre el número de anguilas que existe actualmente en los ríos vascos. Para averiguarlo, se llevan a cabo estudios en un río grande, el Oria (Gipuzkoa), y en otro pequeño, el Barbadun. Los resultados de los muestreos servirán para calcular la población total que existe en el País Vasco. "Con eso ya podremos tener una idea de todo lo que puede haber y hacer estimaciones", señala Gallastegi.

Los alumnos de la Escuela de Acuicultura de primer y segundo curso participan ya en esa fase del proyecto. Por un lado, han diseñado e instalado una trampa en el río Barbadun, en Muskiz, en colaboración con Tknika y el CIP de Tolosa. Sólo faltan unos retoques para que el dispositivo esté operativo de cara a la próxima campaña de febrero, mes en el que las anguilas comienzan a remontar el río.

Además, los estudiantes ayudan a Azti en los muestreos que desarrolla en el río Oria, a la altura de Usurbil, donde también se ha colocado una trampa, y en los estudios que la Diputación foral de Gipuzkoa y Ekolur S.L. realizan con barcos por medio de pesca electrónica.

El profesor de la Escuela de Acuicultura destaca la aportación que supone para los alumnos participar en "un proyecto puntero europeo y mundial", en un campo en el que sólo han trabajado los canadienses. Además, los alumnos tienen la oportunidad de conocer cómo se desarrolla un proyecto y sus diferentes fases.

Una vez que los trabajos de muestreo permitan hacer una estimación fiable de la población total, lo que tardará entre tres y cuatro años, se daría paso, en su caso, a la repoblación de anguilas. Gallastegi destaca que, para ello, sería necesaria la implicación económica del Ejecutivo vasco y las diputaciones, puesto que habría que comprar ejemplares de anguila, muy cotizados en el mercado.

Si finalmente las instituciones conceden esas ayudas, la escuela tiene intención de trabajar con la piscifactoría de Usurbil (Gipuzkoa) en un proyecto de repoblación. De momento, ha habido contactos con expertos de Valencia que han probado técnicas que han dado un "buen resultado". Asimismo, la Universidad de Galway, en Irlanda, también ha mostrado interés por esa cuestión, según indica Gallastegi.

El centro, de la mano de Tknika, tiene intención de crear unidades didácticas en relación a los proyectos desarrollados en el Oria y el Barbadun. Concretamente, se elaborará un DVD sobre la trampa que han diseñado, los muestreos y el ciclo de vida de la anguila. Esa información no será aprovechada sólo por el alumnado del centro, sino que también estará al alcance de estudiante de materias relacionadas con esta cuestión, por ejemplo de la Universidad.

IES UNI EIBAR-ERMUA BHI



Carmelo Oyarzabal Arocena

Eibar-Ermuko IES UNI BHIko Urrats Bat Programako dinamizatzailea

Dinamizador del Programa Urrats Bat en el IES Uni Eibar-Ermua BHI.

Urrats bat, espíritu emprendedor

Urrats bat, ekimen aitzindaria

Urratsbat programak Eibar-Ermuko IES UNI BHI ikastetxean helburu jakin bat du, hots, Lanbide Heziketako ikasleen artean ekintzailetasuna bultzatzea. Honekin lortzen duguna da, gure LHko ikastetxeak benetako enpresa mintegiak bilaka daitezen, pertsona ekintzaileei zein gure ikasleei, oro har, gure instalazioak eta ekipamenduak beraien eskura uztea. Horrela airtuz apiaturiko kolektiboa lan munduan murgiltzea lortzen dugu era berean haiek beren aldetik euren negozio unitatea sortzen dutelarik.

Helburu honi begira, hastapeneko sentsibilizazio bezala, lehenengo jardunaldi bat izaten dugu, 2. mailako ikasleei zuzendua, lau ordu irauten du eta bertan Ekintzailetasunaren muinari buruzko hitzaldi informatzaileak zabaltzen dira.

El programa UrratsBat en el IES Uni Eibar-Ermua BHI tiene como objetivo el fomento de las actitudes emprendedoras entre el alumnado de la Formación Profesional y convertir nuestros centros de FP en auténticos viveros de empresas, posibilitando a las personas promotoras y al alumnado en general la utilización de las instalaciones y equipamientos. De esta forma se les anima a incorporarse al mundo laboral creando su propia unidad de negocio.

Para llevar a buen término este objetivo tenemos una primera jornada de sensibilización inicial de cuatro horas dirigidas al alumnado de segundo curso, a base de conferencias informativas sobre la cultura emprendedora.

"Mutrikuko Akuikultura Eskolako ikasleek aingirak hartzeko tranpa bat diseinatu dute, eta egungo populazioa zenbatzeko laginketa-lanetan parte hartzen ari dira."

"Los alumnos de acuicultura de Mutriku han diseñado una trampa para anguilas y participan en los muestreos para calcular la población actual."

Hura amaitu ondoren, bere formakuntza jarraitzeko asmoa duen ikasleari zuzenduriko autoenplegurako oinarrizko ikastaro bat dator.

Gauzak horrela, gaur egun hiru enpresa ditugu sortuak. Debatika (Informatika zerbitzuak. Aholkularitza eta Prestakuntza). Joseba García eta Iban Lázarak esperientzia handia dute eskualde mailan enpresa eta udal erakundeei informatika ebazpideak eskaintzeko garaian. Euren hasieratik, eta Debegesaren bidez, formakuntza arloan, sistemen mantenuan eta aplikazioen garapenean osotasun izaerazko hainbat egitasmu tekniko bideratu dituzte beti ere Informatika irtenbide eta ez arazo bezala ikusia izan dadin. Gainera, jubilatuei informatika arloko formazio ikastaroak eskaintzen dizkiete Caixa Fundazioaren bitartez. www.debatika.com

Ruibal (Gidari gabeko furgoneten alogera). Ruben Pedraza eta Ibon San Miguelek -Ruibal akronimoaz- egiazko enpresa bat sortu berri dute, urrian hain zuzen, Unin urtebeteko hazte bilakaera izan ondoren, beti ere Urratsbat egitasmoen barruan. 2006-2007 ikasturtean zehar beren negozio plana landu zuten, zeinak Debegesa-IES Uni Eibar-Ermua BHI III. Ideia eta Empresa Egitasmoen Lehiaketan 1. saria lortu zuen. Sari hau hezkuntz alorreko ekintzailetasuna, berrikuntza eta autoenpleguari eskaintzen zaio; ildo beretik 2. sa-



Una vez finalizado éste tenemos un curso básico de autoempleo dirigido al alumnado interesado en continuar su formación tras la sensibilización inicial. Se realizan planes básicos de viabilidad a partir de proyectos presentados.

A día de hoy tenemos tres empresas creadas. Debatika, especializada en Servicios informáticos, Consultoría y Formación . Joseba García e Iván Lázaro cuentan con una sólida experiencia en el desarrollo de soluciones informáticas a empresas e instituciones municipales de la comarca. Desde su inicio, y a través de Debegesa ha desarrollado proyectos técnicos de carácter integral en las áreas de formación, mantenimiento de sistemas y desarrollo de aplicaciones, pretendiendo siempre que la Informática sea vista como solución y no como problema; además imparten formación de carácter informático, vía Fundación La Caixa a jubilados. www.debatika.com

Ruibal se dedica al alquiler de furgonetas sin conductor. Rubén Pedraza e Ibón San Miguel en el pasado mes de octubre acaban de constituirse como empresa real tras un año en incubación como proyecto UrratsBat en "la Uni". A lo largo del curso 2006-07 elaboraron su plan de negocio, obtuvieron el primer premio en el III Concurso de Ideas y Proyectos Empresariales Debegesa-IES "Uni" Eibar-Ermua BHI destinado al fomento de la cultura emprendedora, la innovación y el autoempleo en el ámbito educativo, el 2º premio en Proyectos Empresariales en Juan Torres segunda edición promovido por el Área de Promoción Económica, Empleo y Formación del Ayuntamiento de Ermua y fue calificada como empresa I+E (Innovación y Empleo) por la corporación ermuarra en mayo de este año. www.ruibalalquilerdevehiculos.com

La tercera es Teknotag, dedicada a sistemas en identificación y cerrajería electrónica entre otras. Iratxe Ugalde y Oscar Carril -ambos ingenieros informáticos- y haciendo uso de tecnología RDIF elaboran sistemas de identificación para congresos y similares. Durante el mes de octubre su buen hacer tuvo gran éxito en el Congreso de Podología celebrado en el Palacio Euskalduna de Bilbao.

Además y dentro del mundo de la cerrajería electrónica, distribuyen e instalan a hoteles, centros educativos, edificios singulares lo último en este tipo de producto que está dentro de las TICs. www.debatika.com - www.teknotag.com

Que hay espíritu emprendedor e innovador entre nuestro alumnado es palpable ya que antes de que existiese UrratsBat ya habían surgido firmas como Konektaweb, Serjoik y Msinformática.




ria Enpresa Egitasmoak saritzeko Ermuko Udaleko Ekonomia Sustapenerako Juan Torres Sarian. Aipaturiko udal korporazioak I+E (Berrikuntza eta Enplegua) enpresa izendatu zuen aurtengo maiatzean. www.ruibalalquilerdevehiculos.com

Eta azkenik, Teknotag (identifikaziorako sistemak eta serrailagintza elektronikoa), besteak beste. Iratxe Ugalde eta Oscar Carrilek, biak ingeniari informatikoak, RDIF teknologia erabiliz, identifikazio sistemak lantzen dituzte Biltzar eta antzeko ospakizunetan erabili ahal izateko. Iragan urrian zehar beren bideratze egokia erakutsi ahal izan zuten arrakasta handiz Bilboko Euskalduna Jauregian ospatu zen Podologia Biltzarrean. Gainera eta serrailagintza elektronikoa munduan, zabaldu eta instalatu ohi dute hotel, hezkuntza ikastetxeetan edota eraikin berezietan, IKTen barruan kokatzen diren azkeneko prototipoak. www.teknotag.com

Gure ikasleen barnean espiritu ekintzailea eta berritzailea badabilela frogatzeko esan dezakegu bazirela Urratsbat osatu aurretik honelako enpresak: Konektaweb, Serjoik, Msinformática.

IKASLANI ATXIKITAKO ZENTRUAK CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN



ARABAKO IKASLANI ATXIKITAKO ZENTRUAK / CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN ALAVA

- 1 IES ZARAOCHE BHI
Tel: 945 39 30 00
- 2 IES ESCUELA AGRARIA MENDIKOI ARKAUTE BHI
Tel: 945 28 53 87
- 3 IES SAMANIEGO BHI
Tel: 945 60 01 12 / 60 02 81
- 4 IES CANCELLER AYALA-GREGORIO MARAÑÓN BHI
Tel: 94 672 18 70 / 00 86
- 5 IES MURGIA BHI
Tel: 945 43 02 28
- 6 IES ANITURRI BHI
Tel: 945 30 04 00
- 7 IEFPS MENCIZABALA GLHBI
Tel: 945 00 04 40
- 8 IES (ITS) CIUDAD JARDIN BHI (ITB)
Tel: 945 23 37 14
- 9 IES FRANCISCO DE VITORIA BHI
Tel: 945 27 06 55
- 10 IES (ITS) HOSTELERIA GAMARRA BHI (ITB)
Tel: 945 25 80 25
- 11 IT DE CONSTRUCCION
Tel: 945 00 12 00

BIZKAIKO IKASLANI ATXIKITAKO ZENTRUAK / CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN BIZKAIA

- 1 IES URRITXE-ZORNOTZA BHI
Tel: 94 673 20 12
- 2 IES BARRUTIALDE BHI
Tel: 94 625 11 43
- 3 IES CONSTRUCCION BIZKAIA BHI
Tel: 94 401 38 40
- 4 IES "MINAS" BHI
Tel: 94 437 61 04
- 5 IEFPS NICOLAS LARBURU GLHBI
Tel: 94 418 02 66
- 6 IES BIDEBIETA BHI
Tel: 94 426 27 77
- 7 IES I. AROZENA BARRUETA TAR BENITO BHI
Tel: 94 618 67 40
- 8 IEFPS ELORRIETA ERREKA-MARI GLHBI
Tel: 94 402 80 00
- 9 IES EMILIO CAMPUZANO BHI
Tel: 94 433 33 05
- 10 IES ESKURTZE BHI
Tel: 94 444 44 08 / 43 58
- 11 IES TXURDINAGA-ARTABE BHI
Tel: 94 412 57 12 / 31 60
- 12 IES ESCUELA AGRARIA MENDIKOI DERIO BHI
Tel: 94 454 14 21
- 13 IEFPS ATEGORRI-TARTANGA GLHBI
Tel: 94 467 53 11 / 52 61
- 14 IES ANDRA MARI BHI
Tel: 94 456 27 20
- 15 IES OSTALARITZA BHI
Tel: 94 456 04 58 / 02 53
- 16 IEFPS FADURA GLHBI
Tel: 94 406 90 00
- 17 IEFPS IURRETA GLHBI
Tel: 94 466 88 00
- 18 IES ESCUELA DE HOSTELERIA DE LEIOA BHI
Tel: 94 601 24 46
- 19 IES MUNGIA BHI
Tel: 94 674 06 00
- 20 IES ONDARROA - LEKEITIO BHI
Tel: 94 683 00 98
- 21 IEFPS REPELEGA GLHBI
Tel: 94 495 59 03
- 22 IEFPS SAN JORGE GLHBI
Tel: 94 400 49 30
- 23 IES SATURNINO DE LA PEÑA BHI
Tel: 94 496 13 55

GIPUZKOAKO IKASLANI ATXIKITAKO ZENTRUAK / CENTROS ASOCIADOS A IKASLAN GIPUZKOA

- 1 IEFPS ARETXABAETA GLHBI
Tel: 943 79 79 00
- 2 UROLA I. AZKOITIA-AZPEITIA BHI
Tel: 943 85 21 74 / 81 37 70
- 3 IEFPS MIGUEL ALTUNA GLHBI
Tel: 943 76 24 91 / 76 38 40
- 4 IFP CONSTRUCCION DE DONOSTIA / DONOSTIAKO ERAIKUNTZA LHI
Tel: 943 00 05 00
- 5 IEFPS POLITÉCNICO EASO POLITEKNIKOA GLHBI
Tel: 943 45 54 22
- 6 IES ZUBIRI - MANTEO BHI
Tel: 943 32 60 88 / 943 27 87 00
- 7 ARMERIA ESKOLA
Tel: 943 20 32 44
- 8 ES. UNI. EIBAR-ERMUA BHI
Tel: 943 20 84 44 / 943 17 62 57
- 9 IES ELGOIBAR BHI
Tel: 943 74 80 19
- 10 I. MAQUINA HERRAMIENTA
Tel: 943 74 41 32
- 11 HERNANI INSTITUTUA
Tel: 943 55 11 88
- 12 IEFPS BIDASOA GLHBI
Tel: 943 66 60 10
- 13 PLAAUNDIRUN I.
Tel: 943 81 75 47
- 14 IES LASARTE-USURBIL BHI
Tel: 943 37 06 11 / 943 37 28 52
- 15 IES MUTRIKU BHI
Tel: 943 60 35 45
- 16 R.M. ZUAZOLA-LARRAÑA BHI
Tel: 943 78 21 50
- 17 IEFPS DON BOSCO GLHBI
Tel: 943 51 04 50 / 54 / 58
- 18 IES (IIT) ESCUELA DEL PAPEL (BHI) BT
Tel: 943 67 29 00
- 19 TOLOSALDEA GOIMAILAKO LHI
Tel: 943 85 11 47
- 20 IEFPS USURBIL GLHBI
Tel: 943 36 46 00
- 21 I. MONTE ALBERTIA
Tel: 943 13 42 23
- 22 MENDIKOI-FRAISORO NEKAZARITZA ESKOLA
Tel: 943 69 21 62
- 23 IES ZUMAIA BHI
Tel: 943 86 08 09
- 24 IES LEGAZPIKO OLAZABAL BHI
Tel: 943 73 43 40